

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 209/2023 Erabakia, apirilaren 25ekoa. Onestea hauteskunde mahaie-tako kideen eskuliburua, zeina erabiliko baita datozen toki hauteskundeetan eta Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan

Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hau-teskundeak, 7.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako diputatu nagusiak Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deialdia egin zuen apirilaren 4an. Hauteskundeak maiatzaren 28an izango dira, haien data eta epeak eta udal hauteskundeak berdinak izanik.

Hauteskundeak gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko eta berdintasun printzipioa errespetatzen dela ziurtatzeko, hauteskunde administrazioa eratzen da hauteskunde prozesuetan, hauteskunde batzordeak eta hauteskunde mahaiek osatua.

Hauteskunde mahaien bidez, herritarrek botazioak kontrolatu eta ikuskatu ahal dituzte. Horiei dagokienez, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren, hauteskundeak araubide orokorraren, 27.2 artikuluan arabera, mahaikideek eskuliburua jasoko dute izendapenaren jakinarazpenarekin batera. Eskuliburuan, mahai horietako kideen eginkizunak azalduko dira; hartara, hauteskunde egunean beraien lana behar bezala egiteko informazioa eta laguntza izango dute.

Batzar Nagusien martxoaren 22ko 11/2023 Foru Arauaren bidez, berretsi egin zen Barne Mi-nisterioak eta Arabako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmena. Bada, aintzat hartuta hitzarmen horretan ezarritako lankidetzaren irizpideak eta, zehazki, bigarren klausulako 2.3 atalean xedatutakoa, Barne Ministerioari dagokio eskuliburua idaztea, egitea, banatzea eta gastua; hura onartzea, aldiz, Ministro Kontseiluari eta Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokie.

2023ko martxoaren 2ko erabaki bidez, Hauteskunde Batzorde Zentralak hauteskunde mahaie-tako kideen eskuliburuaren aldeko irizpena eman du. 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetan erabiliko da eskuliburua, zein Barne Ministerioak idatzi duen, aginduzko entzunaldiko izapidean Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren parte hartzea izanda.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak gaur egindako bil-kuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, Hauteskunde Batzorde Zentralaren aldeko iritziarekin, hauteskunde mahaie-tako kideen eskuliburua, zein erabiliko den 2023ko maiatzaren 28an egitekoak diren udal eta Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN